

# Ezpalak

JON TORNER

## Hilaren 27an hasiko dira Eibarko Antzerki Jardunaldiak



NARRUZKO ZEZEN elkar-teak antolatutako Eibarko Antzerki Jardunaldiek 32. edizioa beteko dute aurtentzen. Hilaren 27an hasiko dira, Unzaga plazan eta Toribio Etxeberria kalean egingo den giza-estatuaren erakustaldiarekin. Orotara hogeitaz antzezlan eskainiko dituzte Hezkuntza Esparruan eta Coliseo antzokian; horietatik bederatzia aurrenekoz izango dira

ikusgai Euskal Herrian. Sei euskal taldek parte hartuko dute jardunaldiotan, eta horietatik lauk eskainiko dituzte euskarazko obrak: Deabru Beltzak konpainiak *Nora zoz txanogorritxu?*, Agerre Teatroak *Putzuak lehortzen*, Porpolek *Toda I. Iruñeko erregina* eta Kukubiltxok *Haritzaaren azalera zehatza*. Egitaraua Madrilgo Caricato konpainiaren *Calígula* obrak itxiko du apirilaren 4an.

## Bertsotube.com webgunea abian

BERTSOTUBE.COM webgunea Bertsoa.com atariak jarri du martxan. Bertsozaleek, bertsolariak eta antolatzaileek bertso-bideoak Interneten jartzeko aukera izango dute. Saiotako irudiez gain, hitzaldiak, aurkezpenak eta bes-telakoak ere jasoko ditu webgune berriak.

**Ander** filmak (Roberto Caston, 2009) Arte eta Saiakera Zinema saria irabazi du Berlingalen. Urrezko Hartza, bestalde, Claudia Llosaren *La teta asustada* filmak jaso du.

**Ion Gobella** aktorea omenduko du Gasteizko Zinemastea jaialdiak hilaren 28an Duela zazpi urte hil zen Gabella, motor istripuz. 1984an Sobradun taldea sortu zuen Gorka Aginagalderekin batera. Antzerkian, zineman eta telebistan lan egin zuen, Daniel Calparsoro, Karra Elejalde, Juanma Bajo Ulloa, Alejandro Amenabar eta Fernando Guillen Cuervoren zuzendaritzapean, besteak beste.

**Idoia Neves** (Getaria, 1976), Marta Astrain (Donostia, 1959) eta Cristina E. Mendiluze (Bartzelona, 1965) margolarien erakusketak izango dira ikusgai martxoaren 8ra arte Donostiako Kutxa Boulevard aretoan. Albokoa Idoia Nevesen *Iraganaren atea* obra duzue.



**Kobetasonik** Bilboko jaialdi metaleroaren bigarren edizioa egingo da ekainaren 19an eta 20an, iazko arrakastak bultzatuta. Antolatzaileak kartela osatzen hasiak dira, eta parte hartuko duten zenbait talderen izenak ezagutarazi dituzte jada. Besteak beste, Mötley Crüe, Marilyn Manson, Dream Theater, Anthrax eta Trivium taldeak izango dira bertan.

● **Patxi Zubizarreta idazleak *El Diario Vasco* egunkarian:** «Sari hau [Ala Delta] berezia da euskaraz idatzitako lan batekin Euskal Herritik kanpo irabazten dudana aurrena delako. Esango nuke, gainera, harreman gutxi dugula hurbilekoekin, erdal kulturakoekin, galegoekin, katalanekin edo frantseseekin (...) Oro har, haurrei eskaintzen zaie Walt Disneyren ikuspegi mengel hori, baina errealitatea konplexua da, nahiz eta gehiegi sinplifikatzen diegun. Gordintasuna ere eman behar zaie haurrei. Ezkutatu egiten diegu, baina ez dira tontoak eta badakite hor dagoela».

● **Iñigo Errasti itzultzaileak *Deian*:** «Gogoeta egin beharko genuke ea zergatik egiten zaigun gogorragoa euskarazko itzulpenak irakurtzea gaztelaniazkoak baino. Izan ere, euskaraz badaude literatur itzulpenak. Nire ustez, ohitura kontua baino ez da. Zuok ere,

hedabideok, baduzue modua itzulpenen berri zabaltzeko eta halako lanei izen ona emateko, merezi dutenean, jakina. Eskoletan irakurtzeko zaletasuna bultzatzeaz gain, lantzean behin egin liteke itzulpenaren gaineko gogoetarik, edo itzultzaileak ezagutarazteko jardunaldi-txoak egin, idazleekin egiten direnen antzekoak».

● **Anjel Erro idazleak *Garan*:** «Askok diotenez paperezko liburuarenak egin du, liburu digitalaren iraultza datorrela. Halere, iraultza deitzea gehiegi iruditzen zait. Benetako iraultza beste bat litzateke. Edo beste batzuk. Esaterako, eta ur sakonagoetan sartu gabe, zer dakit nik, irakurtzeari guztiz uztea. Kultura transmisioa hitz idatziaren bidezkoa izan beharrean, irudizkoa baino ez izatearena. Baina agian hau ere ez da iraultza bat, edo ez, behintzat, etortzeaz dagoen iraultza, dagoeneko gertatu den ziurtasun ia osoa eduki dezakegulako».

# Abarrak

JON TORNER

## Infernunik

*From Hell.* Alan Moore & Eddie Campbell.  
Planeta DeAgostini (Lehenengo edizioa: 2001).  
620 orrialde, zuri-beltzean.

LONDRES, 1888. URTEA. Prostituta batzuk hilik aurkitu ditu poliziak. Euren gorpuek estanpa beldurgarria osatzen dute: labanaz egindako ebaki ugari dituzte gorputz osoan, eta hiltzaileak tripak atera dizkie. Inork ez daki basakeria horien atzean nor dagoen, masoien elitea osatzen duten pertsonak salbu.

Irakurlea ere jakitun da. Badaki Ingalaterrako Erre-  
ginak agindu diola William Gull doktoreari emakume horiek akabatzeko, ezinbestekoa delako koroa zikindu dezakeen sekretua isilpean mantentzea. Tira, teoria hau Stephen Knight (1951-1985) idazle britainiarrek defendatzen zuen. Benetan gertatutako hilketak horiek aztertu dituzten aditu gehienak ez datoz bat berarekin. Ezta Alan Moore idazlea eta Eddie Campbell ilustratzailea ere, baina istorioa kontatzeko abiapuntu interresgarria izan zitekeela pentsatu zuten.

*From Hell* nobela grafikoaren helburua ez da hiltzailea ezagutzera ematea, "gertaera izugarri batzuen anatomia zehaztasun osoz aztertzea baizik". Horretarako, Sir William Gull infernuratzen gidatu zuten –ala infernunik atera zuten?– arrazoen sus-traietara jo du Alan Moore idazleak, pilatutako datu historikoetatik abiatuta, liburuaren bi eranskinak erakusten duten moduan. Askorentzat autore ingelesaren obrarik ederrena da, eta Eddie Campbell ilustratzailearen zuri-beltzezko marrazkiek badute zeresanik horretan. Narrazioak eskatzen duen moduan, marrazki ilunak dira oro har, baina tinta trazu beltz eta lodien atzean ezer gutxi ezkututzen da, liburuaren bigarren partean bereziki.

Orain arte ez dugu esan. Garai hartako kazetariak, euren albisteei oihartzun eta ikusgarritasun handiagoa emateko, hiltzaileari –William Gull doktoreari?– ezizen ezaguna jarri zioten: *Jack the Stripper*.



## Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak: .....  
 Helbidea: ..... Posta kodea: ..... Herria: .....  
 Herraldea: ..... Jaioteguna: .....  
 N.A./I.F.K.: ..... Tel./Faxa: ..... e-posta: .....  
 Ordainketa mota:  Bankuz  
 Taloez  
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647  
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik  
 Banku edo aurrezki kutxa: .....  
 Titularra: ..... N.A./I.F.K.: .....  
 Titularraren helbidea: ..... Titularraren telefona: .....  
 Entitatea: \_\_\_\_\_ Sukurtsala: \_\_\_\_\_ K.D.: \_\_\_\_\_ Kontu zenbakia: \_\_\_\_\_  
 Data: ..... Sinadura: .....

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

### Aukeratu ongietorri oparia



"Kirolaz badakit"  
mahai-jolasa



"888 txiste"  
liburua



"Txoriak txori"  
lamina



%25eko beherapena  
ikasle bazara

**Urtebeteko harpidetza:**  
2009ko prezioak

**135 €** Hego Euskal Herrian  
**165 €** Ipar Euskal Herrian

**argia**